

BAPOREA



BILDUMA

María Menéndez-Ponte

Pupiren urtebetetzea

Irudiak: Javier Andrada



ikasmina

PUPÍ
saila

Argitalpen-zuzendaritza: Elsa Aguiar
Koordinatzailea: Paloma Muña
Hizkuntza-aholkularitza: Elisabet Gonzalez (Bakun S.L.)

© testuarena: María Menéndez-Ponte, 2009

© irudiena: Javier Andrada, 2009

© Ikasmina argitaletxea, 2012

Huertas de la Villa, 9
48007 Bilbo (Bizkaia)
www.grupo-sm.com

BEZEROARENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA

Tel.: 902 121 323

Faxa: 902 241 222

Helbide elektronikoa: clientes@grupo-sm.com

Titularren baimenik gabe, debekatuta dago
lan hau birsortzea, banatzea, publikoki hedatzea
edota eraldatzea, Legeak aurreikusitako
salbuespenetan izan ezik. Jo CEDROra
(Eskubide Erreprografikoen Espainiako Zentroa, www.cedro.org)
lan honen zatiren bat fotokopiatzeko
edo eskaneatzeko beharra baduzu.

*Diegori,
ideia bikainak izaten dituelako,
Pupiren antzera.*

*Eta Ignaciori,
abenturazalea izango delako,
Natxo bezala.*

Pupik kezka bat du aspaldi
samarretik. Haur guztiek
ospatzen dute urtebetetzea,
eta berak ez. Zergatik?

Pupi izugarri poztuko litzateke
andereñoak paperezko koroa
jarriko balio buruan, beste guztiei
egiten dien bezala.





Eta eskolara gozokiak eramatea.
Eta festa egitea.
Eta tartako kandlei putz egitea.
Eta besteek *Zorionak zuri...* berari abestea.


Kokek duela gutxi ospatu du
urtebetetzea hanburgesategi batean;
pailazoak ere izan ziren festan.







Parkera iritsi orduko,
Kokeri galdetu dio zer egin
behar den urtebetetzea
ospatu ahal izateko.
Baina Kokeren erantzunak
lur jota utzi du:
–Zuk ezin duzu ospatu.
Botoia zerua bezain gris
jarri zaio Pupiri.
–Eta zergatik ezin dut, bada?
–Urterik ez duzulako.
Kar-kar-kar...



Baina Pupik ez du besterik gabe etsi nahi.

–Eta non lortzen dira urteak?

Koke barrez lehertzen ari da.

Ogitartekoen papurrak hartzen ari diren txolarreak ere ikaratu egin dira haren algarak entzunda.

Eta Pupik ez du ulertzen zergatik ari den laguna algaraka.

